



OÑATIKO UDALA

idazkaritza@onati.eus
Telefonia: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 69
20560 OÑATI

ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arregik Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengoa agintzea erabaki dut:

- Araozko eskola berria ostatu bezala egokitzeko lanen kontratazioaren esleipena

2019ko apirilaren 17ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz "Araozko eskola berria ostatu bezala egokitzeko lanak" kontratatzeke publikitate gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzea onartu zen, Baldintza Zerrenda onartu eta bost enpresei dagokien eskaintzak eskatu zitzaielarik (Elusu eraikuntzak, Lurkide, Agustin Bengoa, Eco-silma eta Zubitxo).

Eskaintako epe barruan (maiatzak 3) ondoren aipatzen diren bi enpresek aurkeztu dituzte beraien eskaintzak: Zubitxo S.Coop eta Ecosilma S.L

Eskaintzak 2019ko maiatzaren 6ko bileran ireki ziren eta maiatzaren 14ko bileran eskaintzen balorazioa onartu zen.

Ondoren, eta prozedura negoziatua delako Baldintza Zerrendako 18.3. artikulua arabera honen berri parte hartu zuten enpresa guztiei ematea erabaki zuen Epaimahaiak, 3 lan-eguneko epea eskainiz eskaintzak hobetzeko.

Epe horretan eskaintza bakarra jaso zen:

Eco silma enpresak egindakoa alegia:

- Prezioa: 242.782,40 euro (obra egiteko epea 5,5 hilabete)

Baldintza Pleguko irizpideen arabera Epaimahaiak Kontratu Legeko 150. artikulua arabera aurkeztu diren proposamenak sailkatu zituen bakoitzak jaso duen puntuazioaren arabera eta honako sailkapen hau onartu zen:

Enpresa	Balio judizioen menpeko irizpideak (25 pto)	Prezioa (75 pto)	Guztira
Eco-silma S.L	15,55 pto	75,00 pto	90,55 pto
Zubitxo S. Coop	12,63 to	74,67 pto	87,3 pto

Baldintza Zerrendaren 18.5 puntuaren arabera, Kontratazio mahaiak 10 eguneko epea eskaini zion aurkeztu behar zuen dokumentazioa aurkezteko.

OÑATIKO UDALA

Horren arabera, 2019ko ekainaren 21ean, Eco-silma S.Lk dokumentu hauek aurkeztu ditu:

- a.- Enpresaren eratze eskriturak eta estatutoak, Merkataritza erregistroan inskribatutakoak
- b.- Enpresaren IFZ (V48886725) (Jada Udaletxean)
- c.-Gizarte seguratzan eta Ogasunean zorrik ez duen egiaztagiriak
- d.- 24.278,00 euroko fidantza (Kutxabank-eko banku abala)
- e.- Jarduera Ekonomikoan zerga eta aldaketarik ez duen agiria (jada Udaletxean)
- f.-ASEFA seguros egindako aseguro poliza (900.000 euro)
- g.- Solbentzia ekonomikoa zein teknikoa:

Kutxabank-eko agiria, non esaten duen bertako bezeroa dela eta betebeharrak guztiak egunean dituela

- .- Arkitekto Teknikoa kontratatua duten agiria (Mariano Romero Santa Cristina)
- .- Aipatutako arkitekto Teknikoak egindako bi lanen agiriak:

- a.- Aretxabaletako Larrino auzoko Lekunberri baserria nekazal alojamendu gisa egokitzea (62.545,60 euro 2014an)
- b.- Eskoriatzako Gorosarri baserria eraberritzea (59.013,67 euro 2011an)

Aurreko puntuazioak ikusiz eta Baldintza zerrendako 19. eta Kontratu Legeko 150.3 artikuluen arabera, Alkatea naizen aldetik honako hau erabaki du:

Lehena: Behin betiko esleipena Eco-silma S.Lk alde egitea, 242.782,40 euro eurotan + BEZ. ejekuzio epea 5,5 hilabete.

Bigarrena: Aipatutako emaitzak parte-hartzaile guztiei jakinarazteaz gain, Oñatiko Udalaren kontratazio atarian argitara ematea.

Hirugarrena: Kontratuko Legeko 151.1 artikulua arabera, formalizazioa egingo da uztailaren 22an

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut Oñatin 2019ko ekainaren 26an.

ALKATEAK

IMPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko **AUZI-ERREKURTSOA** aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri

MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en via administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo **de DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley

OÑATI KO UDALA

Administrazioen Administrazio Prozedura
Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen
114. c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, **nahi izanez gero**, aurreko
idazatian adierazitako administrazioarekiko
auzi-errekurtsoaren aurretik,
BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA
aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen
organoari **HILABETEKO EPEAN**
jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik
kontatzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko
39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta
kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure
eskubideak babesteko egoki irizten dituzun
egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik
egin gabe.

29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la
Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en
concordancia con el art. 114.c) de la Ley
39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento
Administrativo Común de las Administraciones
Publicas.

No obstante, **con carácter potestativo**, y
previo al Recurso Contencioso-Administrativo
señalado en el párrafo anterior, contra la
resolución expresa que se le notifica, podrá/n
Vd/s. interponer **RECURSO DE
REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo
dictó, en el plazo de **UN MES** que se contará
desde el día siguiente al de la fecha de la
recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los
artículos 123, 124 y concordantes de la Ley
39/2015 de 1 de octubre, anteriormente
señalada, y sin perjuicio de cualquier otra
acción o recurso que estimare/n oportuno
interponer para la mejor defensa de sus
derechos.